



EKIPO ELEKTRONIKO INTEGRATUEN GARAPENA (EMBEDDED)

ESPEZIALIZAZIOA



Espezializazio honetan etorkizuneko elektronika integratuko teknikariak prestatzen dira eta hainbat industria-sektoretan lan egiteko gaitasuna ematen dien profil profesionala eskuratzen dute.

Iraupena: 1.550 ordu 1.100ordu enpresan + 450 ordu formakuntza zentroan
Hizkuntza: A eredua

GAITASUN OROKORRA

Zirkuitu inprimatuaren xaflak eta zirkuituetako osagai elektronikoak diseinatzea, kudeatzea eta ikuskatzea (bai prototipoen prozesuetan, bai produkzio-prozesuetan), eta kontrol mikroprogramagarrien kontrol- eta potentzia-ekipo elektronikoak diseinatzea, fabrikatzea, muntatzea eta mantentzea, hori dena kalitate-irizpide jakin batzuk, segurtasun-baldintza batzuk, eta indarrean dauden araudiak betez.

PRESTAKUNTZA PLANA

Edukiak

- Zirkuitu elektronikoaren eskema diseinatzea eta marraztea, eta zirkuitu inprimatuaren xaflak diseinatzea
- Zirkuitu inprimatuaren prototipoen eta xafla-serieen muntatze eta eraikuntza-lanak kudeatzea
- Mikroprozesadore eta/edo mikrokonputadoreetan oinarritutako kontrol mikroprogramagarrien ekipo elektronikoak diseinatzea, fabrikatzea, muntatzea eta mantentzea
- Aparatu logiko programagarrietan oinarritutako kontrol mikroprogramagarrien ekipo elektronikoak diseinatzea, fabrikatzea, muntatzea eta mantentzea (FPGAs)
- Datuak eskuratzeko, arautzeko eta kontrolatzeko ekipo elektronikoak diseinatzea, fabrikatzea, muntatzea eta mantentzea
- Potentziadun ekipo elektronikoak diseinatzea, fabrikatzea, muntatzea eta mantentzea

IRTEERA PROFESIONALAK

Profesional honek, oro har, sektore hauetan egiten du lan: kontsumorako ekipo eta sistemetarako ekipo elektroniko integratuen garapenean, energia banatzeko mikrosareetan, energia berriztagarrietan, kontrol-ekipo industrialetan, ibilgailu elektrikoetan, eta kontrol elektroniko integratuaren sistema (embedded) behar duten sistemetan (gaur egun erabiltzen diren sistema eta ekipo gehienetan aplikatu daitezke).

LANPOSTUAK

- DFMko aholkularia (Design For Manufacturing), Diseinu Sailan
- Prototipo elektronikoaren arduraduna
- Serieko fabrikazioaren arduraduna
- Probatzeko eta abian jartzeko arduraduna
- Aplikazio elektronikoaren prototipoen garatzailea eta muntatzailea

